

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Olo kontseilariak memoriaren inguruan Nafarroako Gobernuaren politika publikoak aurkeztu ditu Oliten

Memoriaren Nafarroako Institutuak memoria historikoaren eta memoria berriaren politikak bilduko ditu

Osteguna, 2018.eko apirilak 26

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria den Ana Ollok gaur arratsaldean parte hartu du foru exekutiboak legegintzaldian Memoriaren inguruan abian jarritako politika publikoen aurkezpenean.

Ekitaldia Nafarroako Oliteko Kultur Etxean egin da, eta bertan izan dira udalerriko alkatea, Andoni Lacarra García; memoria historikoaren ataleko burua, Josemi Gastón; nahiz beste 50 bat pertsona.

Ekitaldian zehar, bi eremu nagusitan abian jarritako lan-ildoak erreparatu ditu kontseilariak: memoria historikoa, Gerra Zibilaren garaian eta frankismoan oinarrituta; eta memoria berria bi alderdi bereiztuetan, terrorismoa eta bereziki ETarena, eta eskuineko muturreko taldeen motibazio politikoaren indarkeria.

Memoria historikoari dagokionean, kontseilariak nabarmendu ditu lurpetik gorpuzkiak ateratzeko eta identifikatzeko egindako lanak; izan ere, Aranzadi Zientzia Elkartearekin egindako elkarlanaren bitartez, 64 gorpu berreskuratu dituzte eta 21 identifikatu jada 146 espediente irekita dituen DNA Bankuari esker. Espazio publikoa demokratizatzeari dagokionez, berriz, hainbat espaziotan eta herritan frankismo-garaiko ikurrak kendu izana nabarmendu du.

Halaber, "Memoriadun Eskolak" programan oinarritu da, eta 2018an 32 ikastetxetako irakasleak trebatu ahal izan direla esan du, era horretan memoriadun Eskolen sarea sortuaz. Horrela, memoriaren inguruan hezkuntza-arloko esperientziak partekatu eta profesionalen artean lan-sarea sortu ahal izan dute.

Horrez gain, Olo kontseilariak aipatu ditu exekutiboak antolatutako errekonozimendu eta ordain ekitaldiak eta Memoria Historikoko Lekuen Nafarroako lege-proiektua. Azkenik, positibotzat jo du Ezkaba Proiektua, Ezkabako ihesaldiaren 80. urtemugaren inguruan zenbait jarduera berekin dituen.



Olo kontseilaria, Andoni Lacarra alkatearekin eta Jose Miguel Gastonekin batera.

Memoria berriari dagokionean, kontseilariak bi testuinguru independente bereiztu ditu, exekutiboa ere horietan era bereiztuan ari baita lanean. Alde batetik, terrorismoaren biktimei dagokienez, kontseilariak azpimarratu du plakak jarri dituztela ETako biktimen oroimenez, hilketak gertatutako herrietako Udaletxeetan. Halaber, erakundeen presentzia aipatu du biktimak errekonozitzeko ekitaldietan nahiz 2017ko udaberriari eta 2017ko urriari egindako jardunaldien antolakuntzan. Azkenik, exekutiboak abian jarritako diru-laguntzen deialdiak eta 2018ko martxoaren 10ean egindako errekonozimendu eta ordain ekitaldia aipatu ditu.

Amaitzeko, kontseilariak abian jarritako lan-ildoen berri eman du, eskuin muturreko taldeen biktimei zuzenduta, eta instituzioaren presentzia errekonozimendu eta ordain ekitaldietan, biktimen artapena eta Unibertsitateko ikerketetarako diru-laguntzen deialdiak aipatu ditu.

Memoriaren Nafarroako Institutua datozen asteetan aurkeztuko du exekutiboak. Institutua memoriaren inguruko politika publikoak koordinatzeko helburuarekin sortu zen, memoriaren ondarea zainduaz, txostenak eginaz eta memoria zabalduaz.

Exekutiboaren nahia da ekitaldiaren bidez herritarrengana hurbiltzea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Bake, Bizikidetzari eta Giza Eskubideetako zuzendaritza nagusia egiten ari den lana; era horretan, ekitaldiak egingo dira datozen asteetan Nafarroako erriberako hainbat herritan.

Hurrengo ekitaldiak Tuteran (maiatzak 9), Lodosan (maiatzak 17), Azagran (maiatzak 18) eta Lizarran (maiatzak 22) egingo dira.